



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

KONTSEILUA



PRENTSA OHARRA 2023/09/26

GURASOLEKU

2021ean abiatu genuen **Gurasoleku** ekimena Amurrion, 2022an Laudiora ere zabaldu genuen eta orain, 2023an, Urduñara ere heldu gara. Bide honetan eragileak batuz joan gara eta Urduñako, Amurrioko eta Laudioko eskola, ikastola eta haurreskola guztiek bat egiten dute egun egitasmo honekin.

Aktibazioan eta kontzientziazioan jarri nahi dugu azpimarra ekimenaren hirugarren aldi honetan. Dei zuzena egin nahi diegu guraso eta familiei: guztiok dugu zer egina eta guztiok egin behar dugu zerbait euskararen alorrean. Gure seme alabek, eskola ibilbidea arrakastaz burutu dezaten ezinbestekoa dute euskara menperatzea, ezinbestekoa, eta horretarako eskolarekin ez da nahikoa, familiek ere beren ekarpena egin behar dute. Euskarak ikastetxeko hezia gaintitu behar du, gure etxe eta kaleetan barreiatu behar da, gure egunerokoa busti behar du. Etxean, kalean, jolasean, aisialdian,... euskara ezin da arrotz izan ez gure umeentzako ezta guretzako ere.

Literatura, komikiak, Hedabideak, musika, zinea eta euskarazko kultura kontsumitu gabe ez dago euskalduntzerik. Gure eskualdeko egoera linguistikoaz jabetu eta horren aurrean, aktibatu beharra dugu, esparru guztietan, baita familietan ere. Gure seme-alabentzako onena nahi dugunez, ez ukatu euskaraz jabetzeko aukera, etxe barrutik hasi gure hizkuntzarekiko harremana lantzen eta hizkuntza bera transmititzen. Ezin dugu eskola bakarrik utzi zeregin horretan, egun jakina baita, berak bakarrik ezin duela.

Testuinguru honetan **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, AEK-k**, Aiarako **Berbalagun** programak indarrak batu eta **GURASOLEKU** sortu genuen 2021ean Amurrion, baina xede argi batekin: Aiaraldea osora zabaltzea. **Zabaleko, Mendiko, Aresketa** ikastola, **Amaurre** ikastetxea eta **Tipi-tapa** eta **Tantaka** haurreskolek bat egin zuten. Iaz bigarren pausua egin genuen, Laudion ere gauzatu. Proiektura **Laudioko Udal Euskaltegia** gehitu zitzaigun eta haur-eskola eta haur hezkuntzan ari diren ikastetxe guztiek heldu zioten erronkari **Matxintxu** haur-eskola, **Fabian Legorburu** ikastetxea, **Lamuza** eskola, **Lamilagrosa** ikastetxea, **Laudio ikastola** eta **Latorro** ikastetxea. Aurten Urduñara heltzearekin batera **Udaberria Euskaltegia** batu zaigu eta ekimenean parte hartzea erabaki dute baita **Aintzinako Andra Mari** ikastetxea, **Urduña Herri Eskola** eta **Urduñako haurreskolak**.

Egitasmoa



Helburua 0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familien baitan euskararen transmisioa bultzatzea da. Xede hori lortzeko eragile ezberdinen arteko elkarlana baliatu, sentsibilizazioa landu, marko teoriko bat azaldu eta tresna pertsonalizatuak eskaintzen ditu **Gurasolekuk**.

Programaren ezaugarriak izango dira baita *feedback*-aren bilaketa eta moldagarritasuna. Proiektua ez baita hutsetik hasten, 2016tik Lasarte-Orian arrakastaz martxan dagoen izen bereko ekimenean oinarritzen baikara. Ttakun elkarte euskalduntzean Euskal Herri mailako erreferentea da, Gurasoleku ekimenaz gain haiek sortu zituzten *belarriprest* eta *ahobizi* figurak, besteak beste.

Eskaintza

Laudioko eskola eta haur-eskolei proiektua aurkeztu ostean, guztiek baiezkoa eman digute. Amurrion ere, guztiek bat egin dute berriz ere. Erantzun hau pozgarria da oso guretzat eta lanean jarraitzeko hauspoa ematen digu.

Lehenengo 0-5 urte bitarteko irakasle-tutoreei formazio saioak eman dizkiegu euskararen aurrean gurasoak sentsibilizatzeko bideak eta aholkuak azalduz eta gure eskaintza helarazteko tresnak emanez.

Bigarrenik, gurasoekin bilerak egin ditugu euskararen inguruan gogoeta eginez, errealitatearen argazkia partekatuz, euskalduntzean pausuak emateko aholku praktikoak emanez eta gure eskaintza pertsonalizatua azalduz, motibazio eta aurkezpen saio batzuen bitartez.

Gure programak dakarren eskaintza pertsonalizatua hiru ataletan banatzen da:

1. Euskara ikasteko bidea ematen duen GURASOEUSKALTEGIA,
2. Mintza praktika egiteko GURASOLAGUN
3. Aisialdia familian eta euskaraz gozatzeko GURASOLAGUN AGENDA

[Eskaintzaren informazio zehatza esku-orrian duzue. Atxikitako dokumentua]

Etorkizuna

Ibilian moldatu eta zabaldu nahia dugun proiektua da GURASOLAGUN, eragile berriak batuz eta eskaintza handituz urtez urte. Amurrion izan genuen erantzun ona akuilu, Laudiora zabaldu genuen iaz eta aurten Urduñara ere heldu gara. Hurrengo urteetan Aiaraldeko gainerako 7 udalerrietara zabaltzeko lan egingo dugu.



Gehiago jakiteko:

<http://aiaraldekoeskalgintza.eus/>

kanpainako bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=tsoV8TRZeCc>

kontaktua: info@aiaraldekoeskalgintza.eus tlf. 688 86 29 49

Prentsa agerraldian parte hartuko dute:

Enartze Larrakoetxea	URDUÑA HERRI ESKOLA	zuzendaria
Estibalitz Minguez	AINZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA	zuzendaria
Mariyer Egia	AEK	ordezkaria
Noelia Ramos	UDABERRIA EUSKALTEGIA	ordezkaria
Matxalen Garcia-Escudero	URDUÑAKO UDALEKO EUSKARA ARLOA	euskara teknikaria
Christian Alemany	AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA	ordezkaria